



Zinemaldi
Alternatiboa
SAN SEBASTIAN INSURRECTIONARY FANDANGO FESTIVAL

13+5
Irailaren 17tik 27ra

goserikan
dirauno
ez
gara
gu
asetuko



SSIFF

San Sebastian
Insurrectionary
Fandango Festival



DONOSTIAKO ZINEMALDI ALTERNATIBOA 13+5

San Sebastian Insurrectionary Fandango Festibala

Herri mugimenduek antolatutako Zinemaldi Alternatiboa, adinez nagusi

Donostiako Zinemaldi Alternatiboa 13 + 5. Hamahiru gehi bost (Kortxenea gaztetxean burututako edizioen oroimenez). Matematiketik hutsik egiten ez badigute, adin txikiko izateari utziko dio ekimen honek aurten. Hemezortzi edizio autogestioaren bidez kritikotasuna sustatzen, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Hemezortzi urte daramatzagu erresistentzia eta disidentzia askotarikoen bozgorailu izan asmoz, zinema, kritikotasuna, aldarrikapena eta gozamina uztartuz. Horretan jarraitzen dugu, hasierako ilusio berarekin.

Azken urteetan finkatutako antolaketa horizontalari jarraituz, 2026ko edizio honetarako hamar proiektu eta kontzertu bat antolatu ditugu, Donostiako beste horrenbeste herri mugimendurekin elkarlanean. Aurten lehen aldiz, Groseko Indarra Surf Taldea batu da ekimenara, beren txiringitoan dokumental bat proiektatuz, eta ongi etorria eman nahi diegu.

Instituzioek eta Zinemaldi ofizialak hiri hau osatzen dugun auzoak baztertzen dituzte (jakin behar da, beti ez dela horrela izan) eta horren aurrean, herritarrok aurkitu dugu gure bidea: kulturaren autogestioa. Hortaz, ondorengo auzoetan izango gara aurten: Antiguan, Saguesen, Zubietan, Grosen, Egian, Ulián, Ibaetan, Alde Zaharrean, Txominenean eta Intxaurren. Eragile hauek arduratu dira egitarau eder hau osatzeaz: Txantxarreka gaztetxea, Behin Batean Txomineneko euskaltzaleen taldea, Groseko Indarra Surf Taldea, Marruma kulturalak, Uliako Lore Baratzak, AZGA, Teila Fabrika, Gurdi Ertz, Euskadi Cuba, Herritarron Harrera Sarea eta Letaman gaztetxea. Bakarrik ezin da, lagunekin bai.

KARTELEAN: KALEKO AFARI SOLIDARIOEK PAIRATZEN DUTEN JAZARPENEA

Kartel ofizialari egiten diogun bertsioan, azken bi urteetan Palestinako herria pairatzen ari den genozidioa salatu genuen eta aurtengoan, berriz, gurerak ekarri dugu fokua: Kaleko Afari Solidarioek pairatzen duten jazarpena.

Gaua kale gorrian igaro behar duena, gosez dena, ez da zenbaki hutsa. Pertsona bat da. Gogora ekarri nahi ditugu Bertolt Brechten olerkian oinarrituta Joxan Artzek idatzitako hitzok: “Bat inon goserik deino, ez gara gu asetuko”.

Aurtengo egitaraua iragartzeko egin dugun bideoaren bidez, kartelari ahotsa jarri nahi izan diogu, gainera: “Beste asko bezala, ni ere kalean bizi izan nintzen Donostian. Bizilagun batzuei esker, gaur egun etorkizun bat dut. Elkartasuna ez da delitua”, diosku kalean bi izan zen garaian KASeko afariari esker egunean otordu bero bat izan zuen lagun batek. Ez dira hitz hutsak. Ez da aurpegi soil bat. Bizitza bat da.

Eta, ardi larruz, faxismoa kaleak hartzen ari den honetan, ozen diogu parez pare izango gaituztela. Inor ez da ilegala!

BI FILM BERRIRO

Aurtengo egitarauari erreparatuz gero, gure ibilbidea ezagutu eta begi fina duenari zer edo zer deigarria egingo zaio, akaso. Izan ere, aurten, lehenengo aldiz, aurreko edizioetan proiektatutako bi film ikusi ahal izango ditugu berriro. Kortxoenean ospatu genuen bigarren edizioan proiektatu genituen. Eta horrek badu bere zentzua.

Film bat bigarrenez bota behar bagenuen, film horrek **KALABAZA TRIPONTZIA** behar zuen izan. Euskal zinemaren historian ez dira asko izango belaunaldi bat —edo batzuk— horrela markatu dituzten pelikulak. Zerbaitegatik dugu hau euskarazko marrazki bizidunetako lehen film luzea. Bertan izan ginenok memorian iltzatuta dugu Juanba Berasategi zuzendariarekin Kortxoenean izandako solasaldi hura, 2017an.

Bigarrenez proiektatuko dugun beste filma, berriz, **SEGOVIAKO IHESA** dugu. Euskal Herrian izan dugun ihesaldi sonatuenak (ez dantzatuenak) mende erdia bete berri duen honetan, Imanol Uriberen film hau berriro proiektatu nahi izan dugu. *Operación Poncho* jarri zioten izena. Gure herriko historia hurbileko pasarte hari eskainitako saioa izango da, protagonista bat bertan izango dugula.

GENOZIDIOA ZURITZEN DUTENAK KANPORA!

Gure egiten dugu BDZ Euskal Herriaren [salaketa](#), eta beraiek bezala **Dana Blankstein Cohen** Zinemaldiko epaimahaikide izendatu izana deitoratzen dugu.

Dana Blankstein Cohen, Jerusalemgo Sam Spiegel Zinema Eskolako zuzendaria da, Eskola hau ez da erakunde kultural neutral bat. 1989an sortu zuten Israelgo Hezkuntza eta Kultura Ministerioak eta Jerusalemgo Fundazioak, eta **Israelgo Kultura Ministerioaren**, **Jerusalemgo Udalaren** eta **Israelgo Loteria Nazionalearen** finantzaketa zuzena jasotzen du. BDZ Euskal Herriako lagunek dioten bezala Israelgo Estatuaren beso bat da.

Ez da aski Palestinarren aurkako genozidioaren aurka egotearekin. Ezin da genozidioa gaitzetsi eta aldi berean hura zuritzen dutenei leku egin.

Guk ere Dana Blankstein Cohen epaimahaikide gisa berehala kanporatua izan dadila eskatu nahi diogu Donostiako Zinemaldiari.

KLAUSURA EKITALDIA

Edizio ugaritan musikak eman dio amaiera gure festibalari, eta Marruma Kulturalak ekimenak aurrera eramaten dituen kontzertu akustikoak baliatuz, ohitura hori berreskuratuko dugu aurten.

Irailaren 27an I. Etxarri eta Lide Hernando izango ditugu akustikoan, musika eta elkarrizketa uztartuko dituen saio polit batean. Liher eta Beleren kantuak entzuteko aukera izango dugu, eta, bi gonbidatuak zinez zinezaleak izaki, abestien arteko solasaldiak interesgarriak izango direnaren dudarik ez dugu.

SABINO GOGOAN

Eta ezin testu hau amaitu abuztuan zendu zen Sabino Ormazabal militante ekologista, antimilitarista eta herri mugimenduen laguna gogora ekarri gabe. Zinemaldi Alternatiboaren 13. edizioan gurekin izan genuen "Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa" dokumentala Gladys Enea parkean bertan aurkeztzen.

Arrakala bat dago denean. Hortik sartzen da argia.

IRAILAK 17, OSTEguna

Lekua: [Txantxarreka](#) gaztetxea
(Antigua)

Ordua: 19:00etan

Proiektzioa: **THEY TRIED TO BURY US**

Zuzendaria: Andrew Nethery

Solasaldia: Niña Cotyote eta Chico Tornadoekin



Andrew Nethery zuzendari estatu batuarren ikuspegitik, Euskaletzeko gaztetxe eta musika mugimenduari begirada bat ematen dion dokumentala da "They try to bury us". "Niña coyote eta chico tornado" taldea da dokumentalaren haria, Fermin Muguruza, Mikel Kazalis, Jurgi Ekizaren eta hainbat gaztetxeetako gazteen elkarriketekin lagunduta.

IRAILAK 18, OSTIRALA

Lekua: [Groseko Indarra](#)
[Surf Taldearen txiringitoan](#)

(Zurriolako hondartza)

Ordua: 21:00etan

Proiektzioa: **POINT OF CHANGE**

Zuzendaria: Rebecca Coley

Groseko Indarra Surf
Taldearekin elkarlanean

TRAILERRA

*Euria eginez gero sare
sozialetan zabalduko dugu data
berria.



1970eko hamarkadan olatu perfektua aurkitu izanak betiko aldatu zuen uharte-komunitate baten historia. **POINT OF CHANGE** dokumentalak Indonesiako Nias uharteko leku hau “aurkitu” zuten lehen surflarien istorioa kontatzen du, baita aurkikuntza hark nahi gabe ekarri zituen ondorio dramatikoak ere: ondorio sozial eta ekologiko larriak bertako biztanleentzat eta ingurunearentzat.

POINT OF CHANGE dokumental luze erakargarri eta dramatikoa da. Orain arte inoiz erakutsi gabeko Super 8 artxibo-irudiak, gaur egungo elkarriketak eta animazio ederra uztartzen ditu. Jatorrizko soinu-banda Stephen Warbeck Oscar saridun konpositoreak sortu du, eta Paul Oakenfolden nahiz tokiko musikarien musika-pieza berriak ere biltzen ditu. Horren bidez, filmak argi erakusten du nola beren kontroletik kanpo zeuden indar ekonomiko eta ingurumeneko boteretsuek gizarte bat atzera bueltarik gabe eraldatu zuten; gaur egun ere oso ezaguna eta esanguratsua egiten zaigun errealitate baten irudia eskainiz.

IRAILAK 19 LARUNBATA

Lekua: [Zubietako Errebote plazan](#)

Hizkuntza: Euskara

Ordua: 20:00etan

Proiektzioa: **AIRE!**

Zuzendaria: Gentzane Martinez de Osaba

Solasaldia: Dokumentalaren egileekin.

Gurdi Ertz kolektiboarekin elkarlanean

TRAILERRA

*Euria eginez gero Kaxkapen.



Arratiako bailararen bihotzean, 13 gaztek musika-pieza bat sortuko dute Maurizia Aldeiturriagarengan inspiratuta; izan ere, emakumea XX. mendearen hasieran euskal musika herrikoia goitik behera aldatu zuen panderojole ikonikoa izan zen. Musika tradizionaleko hiru adituk lagunduta eta Mauriziaren beraren eraginpean, gazte horiek sortze-prozesu paregabe batean buru-belarri sartuko dira, zeinean musikalki helduko diren eta beren ahotsa topatuko duten. AIRE! abentura musikala da, musikaren ahalmen eraldatzailea, naturalaren edertasuna eta tradizioa erakusten dituen.

IRAILAK 20 IGANDEA

Lekua: [Marruma](#) Elkartea
(Gros)

Proiektzioa: **SEGOVIAKO IHESA**


Hizkuntza: Euskara

Zuzendaria: Imanol Uribe

Solasaldia: Ihesaldian parte hartu zuen **Josu Ibargutxi** eta **Angel Amigo** preso ohiekin.

Marruma Kulturalak-ekin elkarlanean

TRAILERRA



50. urteurrena

1977ko udan, erbestean bizi den preso politiko batek bere ihesaren nondik norakoak kontatzen dizkio kazetari bati. 1976ko apirilean, ETAko kide talde batek espetxetik ihes egitea prestatzen du, baina egitasmoak porrot egiten du zaindarien egiten ari diren tunela aurkitzen dutenean.

Presoek, ordea, ez dute amore ematen, eta bigarren tunel bat egiten hasten dira. Zortzi hilabeteko zailtasunen ondoren, ihes egitea lortzen dute. Frankismoaren azken hilabeteetako egoera politiko delikatu eta demokraziaren lehen zantzuen agerpena tarteko, taldearen ihesaldiak ustekabeko ondorioak izan zituen.

IRAILAK 21, ASTELEHENA

Lekua: [Teila Fabrika](#) (Egia)

Proiektzioa: 'Sasi guztien azpitik, hodei guztien gainetik'. Euskarazko animazioaren lehen film luzea

'**KALABAZA TRIPONTZIA**' filmaren emanaldia, **Koldo Izagirre** gidolariarekin batera.

Hizkuntza: Euskaraz

Zuzendaria: Juanba Berasategi

Ekoizlea: Luis Goya

Teila Fabrikarekin elkarlanean



Juanba Berasategik zuzendutako filma da, Koldo Izagirreren gidoiarekin eta Oskorriren musikarekin, 1984ko Zinemaldian Ohorezko Aipamena jaso zuen filmak.

Kalabaza Tripontzia euskal mitologiako ipuin eta kondaira tradizioaletan oinarritutako animazio-filma da. Istorio ezberdinen bidez, Tartalo, Kukubiltxo, Galtzagorri, Herensugea eta beste hainbat pertsonaia mitologiko agertzen dira, bakoitza bere abentura eta gorabeherekin. Kontakizunak independenteak badira ere, hari komun batek lotzen ditu, eta umorea, fantasia eta euskal kulturako elementuak uztartzen dituzte. Horrela, filmak Euskal Herriko ahozko tradizioako pertsonaia eta istorio ezagunak pantailara eramaten ditu modu dibertigarri eta irudimentsuan.

IRAILAK 22, ASTEARTEA

Lekua: [Uliako Mintegietako parkea](#)

Ordua: 19:00

Proiektzioa: **TIERRAS**

RARAS, EL DILEMA DE LA MINERÍA EN PENCO

Hizkutzia: Gaztelania

Solasaldia: Ria Ruda Lafken


'Playa Roca Madre'

lurraldearen zaindariarekin
bideo-elkarriketa

KINKA Donostialdeko
Autonomoen Sarearekin
elkarlanean.

TRAILERRA

* Euria eginez gero bertako
negutegian.



Txileko Biobío eskualdeko Penco herrian Aclara Resources enpresak lur arraroak ustiatzeko meatze-proiektu bat martxan jartzeko aukera dago, eta horrek tokiko eremua gainditzen duen gatazka baten erdigunean kokatu du komunitatea. Dokumentalak aztertzen du nola mineral horien mundu mailako eskari gero eta handiagoak —teknologia askotarako eta trantsizio energetikorako funtsezkoak baitira— lurraldea Txinarekiko mendekotasuna murrizteko lehia geopolitikoaren parte bihurtu duen.

Garapen ekonomiko eta teknologikoaren promesen aurrean, **Tierras Raras: El dilema de Penco y el Gran Concepción** dokumentalak kaltetutako komunitateen kezkak jasotzen ditu, eta meatze-jarduerak uretan, ingurumenean eta tokiko biztanlerian izan ditzakeen ondorioak aztertzen ditu. Bizilagunen, adituen, agintarien eta enpresako ordezkarien testigantzen bidez, dokumentalak trantsizio energetikoaren, erauzketa intentsiboaren eta justizia sozioingurumenalaren arteko kontraesanak agerian uzten ditu.

IRAILAK 23 ASTEAZKENA

Lekua: [Arkitektura Eskola](#) (Ibaeta)

Ordua: 17:30etan

Proiektzioa: ELLAS EN LA CIUDAD

Hizkuntza: Gaztelania

Zuzendaria: Reyes Gallegos

Solasaldia: Reyes Gallegos
zuzendariarekin.

[TRAILERRA](#)



1970eko hamarkadan eraikitako hirietako kanpoaldeko auzoak populatu zituzten emakumeen belaunaldia da protagonista. Sevillako hiru auzotan bizi izan dutenaren bidez, haiei bizkarra ematen dien hiri baten euskarri nagusietako bat direla ikusiko dugu.

Haien kontakizunek generoaz, zaintza-lanez, hirigintzaz, hezkuntzaz eta borroka politikoez hitz egiten dute. Haien testigantzak ezinbestekoak dira gure herrialdeko ondare kulturala genero-ikuspegitik ezagutzeko, baita azken 50 urteetan gure hiriek izan duten eraldaketa ulertzeko ere.

IRAILAK 24 OSTEGUNA

Lekua: [Guardetxea](#) (Parte Zaharra)

Ordua: 19:00etan

Proiektzioa: **MADRASA + EL PESO DE LA MANTA**

Zuzendaria: **John English** eta **Tomnie L. M. Hoban** (Otoxo Productions)

Solasaldia: Kale egoeran bizi izandako bi lagunekin eta Harrera Sareko bolondresekin.

Harrera Sarea eta Guardetxearekin elkarlanean.



TRAILERRA

Bizitza hobe baten bila itsasoa zeharkatu eta bidaia gogor eta neketsua egin ondoren, Bartzelonara iristen diren Afrikako etorkin askok kaleko salmentan jarduten dute beren familiak mantendu ahal izateko. Agintarien diskriminazioa jasaten dute, eta hauek etengabe erabiltzen dute errepresioa legea betearazteko. Dokumental honetan Aziz, Lamine eta Seni jarraitzen ditugu, Afrikako hiru etorkin. Beren giza eskubideak defendatzeko, kaleko saltzaileen sindikatu bat sortzeari ekiten diote. Haien borrokaren bidez, migrazioaren, prekarietatearen, arrazakeriaren eta eskubideen aldeko antolakuntzaren errealitatea ezagutuko dugu.

IRAILAK 25, OSTIRALA

Lekua: [Arteleku plaza](#)

(Txominenea)

Ordua: 20:00etan

Proiektzioa: **GARTXOT**

Hizkuntza: Euskara


Zuzendariak: Asisko Urmeneta eta
Juanjo Elordi

Pintxoak izango dira afaltzeko!

Behin Batean Txomineneko
euskaltzaleen taldearekin
elkarlanean.

TRAILERRA

*Euria eginez gero Auzo Elkartean.



Gartxot Nafarroako bardo baten istorioa da. Orreagako abade berriak erbesteratu egingo du bere seme balarra kendu eta fraile kantore bihurtzeko. Semeak ihes egingo du eta aitari zinaraziko dio ez diela fraileei berriro harrapatzen utziko.

Aita-semeak berriro hasiko dira kantuan, eta herritarren laguntzaz, zapalkuntzaren kontrako ikur bihurtuko dira. Elizak desafiotzat hartuko ditu ibilera horiek eta azkenean, soldaduek inguratzea lortuko dute. Gartxotek semeari emandako hitza gogoratuko du eta tragedia bat gertatuko da.

IRAILAK 26, LARUNBATA

Lekua: [Letaman](#) gaztetxean
(Intxaurrondo)

Ordua: 19:00etan solasaldia eta
20:00etan filma

Proiektzioa: **TARARÁ**


Hizkuntza: Gaztelania

Zuzendaria: Ernesto Fontán

Solasaldia: Endika Guarrotxena
eta Antonio Merlán

TRAILERRA

Euskadi-Cuba eta Letamanekin
elkarlanean.



Txernobyngo zentral nuklearraren leherketak kaltetutako milaka haur Kubako Tarará hirira iristen dira. Han, biktimei zuzendutako osatze-programa integral bat antolatzen da.

Munduan ordura arte parekorik izan ez zuen osasun-arretako programa honetan parte hartu zuten protagonisten kontakizunen bidez, elkertasunez beteriko historia zirraragarri bat berreraikitzen da.

IRAILAK 27 IGANDEA

Lekua: [Marruma](#) Elkartea (Gros)

Klausura ekitaldia i. Etxarri eta Lide Hernandoren kontzertu akustiko elkarrizketatuarekin.

Hizkuntza: Euskara

Marruma Kulturalak-ekin elkarlanean.





13+5

Irailaren 17tik 27ra

batek
goserikan
dirauno
ez
gara
gu
asetuko

OSTEGUNA 17

They tried to bury us

19:00 / Txantxarrekan (Antiguo)

ASTEAZKENA 23

Ellas en la ciudad

17:30 / Arkitektura Eskolan (Ibaeta)

OSTIRALA 18

Point of change

21:00 / Groseko Indarra
Surf Taldearen txiringitoan
(Zurriolako hondartza)

OSTEGUNA 24

Madrasa +

El peso de la manta

19:00 / Guardetxean

LARUNBATA 19

Aire!

20:00 / Zubietako Errebote plazan

OSTIRALA 25

Gartxot

20:00 / Arteleku plazan
(Txominenea)

IGANDEA 20

Segoviako ihesa

(50. urteurrena)

18:00 / Marruma elkartean (Gros)

LARUNBATA 26

Tarará

19:00 / Letaman gaztetxean
(Intxaurrondo)

ASTELEHENA 21

Kalabaza Tripontzia

18:00 / Teila Fabrikan (Egia)

IGANDEA 27

KLAUSURA EKITALDIA

Lide Hernando

eta i. Etxarriren

kontzertu akustiko

elkarrizketatuarekin

18:00 / Marruma elkartean
(Gros)

ASTEARTEA 22

**Tierras Raras, el dilema
de la minería en Penco**

19:30 / Uliako Mintegietako parkean

Zinemaldi Alternatiboa

SAN SEBASTIAN INSURRECTIONARY FANDANGO FESTIVAL

AFARIAK

BANATZEA

ILDA DELITU